

IKASLEEN TXOKOA - Elizatxo Ikastola

Hernanika
kronika
2009-XI-27 ostirala

Open your eye

Margoetatik zinema digitalera / II

Jon Patxe

Plastikozko poltsak erabili? / II

Iker Izagirre eta Jon Patxe

Kontenedore baten egunerokoa / III

Unai Granado



100 urte txuri-urdinez / III

Aitor Harto eta Iñigo Garin

Blai-blai eginda gozatuz / IV

Alba Gonzalez, Olatz Garcia de Vicuña eta Leire Etxeberria

III / Nola iritsi daiteke

pertsona bat bere

buruaz beste egitera?

Xabier Agirrezabala

Frikia naiz, larria al da doktore? / IV

Unai Granado



Egileen argazkia / IV

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

ELIZATXO IKASTOLA

Margoetatik zinema digitalera

Gizakia historian zehar beti saiatu da mugimendua harrapatu eta ondoren errepresentatzen.

XIX. mendean argazkigintzaren agerraldiak aurrerapen handia ekarri zuen baina hori ez zen nahikoa; argazki horiek mugimendu bihurtu nahi zituzten, baina nola?

JON PATXE
Elizatzko ikastola

MENDEETAN zehar zibilizazioak errealitatea erreproduzitzeko prozedurak aurkitzen saiatu dira. Erreproduziorako lehen pausoa XIX. mendean eman zen argazkigintzaren bitartez. Hala ere, oraindik mugimendu gabeak ziren imajinak. Mende horretan asmatzaile askok lanean jardun zuten mugimendua errealitate bihurtzeko.

Zinematik hurbilen egon zen asmakizuna antzerki optikoa izan zen.

Beranduago 1895ean behin-betiko estreinatuta zen zinema Parisen Lumiere anaiei eskutik. Urte haietan zegoen zinema mota mutua zen.

Zinema mutua

Garai horretako teknologiei begira, zinemak izugarritzko arrakasta izan zuen, baina garai hartako zinema ez zen gaurkoa bezalakoa; mutua zen eta gainera txuri-beltzean.

Egia esan, ez zen guztiz mutua, garai hartako filmeei pianista batek

laguntzen baitzien eta pertsona batek gertatuko zena kontatu eta argitzen zuen.

Gainera garai horretako filmeak merkeak eta iraupen gutxiak ziren.

Estatu Batuak inmigrantez beteriko estatu bat izanik, zinema mutua asko eragin zuen inmigranteen bizitza sozialean; beste lekuetan ez bezala, zinema aretoetan gusturaz sentitzen baitziren ez zutelako hizkuntza diskriminaziorik, hortaz etorkinen gehiengo bat zinemara joaten zen.

Thomas Edisonk Zinematografoaren erantzule izan nahi zuenez, auzitara eramane zuten. Baina nahiz eta erantzukizunik ez lortu, epaiketarik garbi ateratu zen.

Horren ondorioz, produktore independente delakoek Estatu Batuetako mendebaldera joan behar izan zuten eskapadetan. Gainera, bidai hori ez zitzaientzat batere gaizki etorri grabaketarako leku zoragarri bat aurkitu baitzuten: Paisaia desberdina zituzten eta ia urteko egun guztietan eguzkitsu



Hiru, bi, bat... grabatzen!

mantentzen zen eta gainera Mexikoko helmugatik hurbil gelditzen zen, aldegin beharko balute edo. Horrela sortu zen munduan zinegintzari dagokionez inoiz izan den leku garrantzitsuena: "Hollywood".

Zinema mutuko eszenatokiak sinpleak ziren: oihal pintatuak eta kamara estatiko bat erabiltzen zen. Baina urteak aurrera joan ahala, filmetako zuzendariak gaur egun arruntak iruditzen zaizkigun gauzak egiten hasi ziren. Hala nola, kamara mugitzea edo anguluan erabiltzea.

1927an Warner Brosen eskutik lehen pelikula hitzuna iritsi zen, nahiz eta urte batzuk itxaron beharko zituzten, zeharo zine-

ma hitzunerara aldatzeko. Hain zuzen ere, hamar urte beranduago oraindik, Charles Chaplin-en filmek arrakasta handia izan zuten, mutua izan arren.

Urteak aurrera joan eta txuri-beltzetik koloretara pasa ziren eta gainera lehen "Banda Sonorizatuak" agertu ziren eta handik aurrera oso erabiliak izan ziren.

Zine motak

1930eko hamarkadan mota guztietako filmeak egiten hasi ziren eta horrela agertu ziren zinema motak edo azpitaldeak. Lehenengoak dokumentalak, historikoak eta biblikoak izan ziren. Horiei jarraituz, gangsterren filmak, zinema beltza, zinema fantastikoa eta fikziozkoak agertu ziren.

Eta ondoren, zinema mutua atzean utzita, beste zenbait azpigenere sortu ziren: Beldurrezko filmak, Komedia musikalak, komediak eta Westerrak.

Azkenik, 1940an beste aurrerapauso bat egin zuen zinemak, Walt Disney-ren eskutik, lehen filme animatua sortu baitzuen.

Bigarren Gerrate Mundiala bukatu ondoren zinemari etsai boteretsua sortu zitzaion; telebista, hain zuzen.

Bertako programek eta telesailak zinema bigarren planoan utzi zuten eta ondorioz zinemalariak eraso horri aurre egiteko efektu berriak sartu zituzten filmetan; aurreko urteetan bezala, berriro ere arrakasta izugarria lortu zuten.

Hau guztiaren ondorioz esan dezakegu, 1950 eta 1970 urteen artean zinemak aurrerapen tekniko handiak izan zituela.

Hurrengo hamarkadan, 80an, ideia berri bat izan zuten zinemalariak: "Denboraldiko estrenua izango da filme hau", hori esaten zuten arrakasta lortzeko. Hori egin zuten hamarkada horretan atera zituzten pelikula famatuekin: Tiburon (Steven Spielberg), Indiana Jones, Star Wars...

Film horiek izan ziren, gaur egungo zinemari atea ireki ziotenak. ■

Plastikozko poltsak erabali?

TXARRAK al dira plastikozko poltsak? Nahiz eta horrelako ideiak sinestarazten dizkiguten, frogak daude pentsatzeko, enpresen hoberrako direla kanpaina hauek, horrela enpresa hauek milioiak aurrezten baitituzte.

Poltsak ezin direla birziklatu diote, 400 urte

irauten dutela deskonposatzen, hoberena beste materia bateko poltsak erostea dela... Baina guzti hori GEZURRA da. Hau da, %100 dira birziklagarriak, hilabete gutxitan deskonposatzen dira aire librean.

Bestalde, badira argira ateratzen ez diren kontuak; adibidez, plas-

tikozko poltsak ematen ez badizkigute milioika euro aurrezten dituzte. Nola? poltsa alternatiboak saltzen dizkigute, hobeak direla esanez eta beraiek diru gehiago lortzen dute.

Horrez gain, ez dute esaten, plastikozko poltsak hondakin bihurtzen direla, petroleoaren sub-

produktu direlako, eta poltsa hauek egiteri uzten badiote pertsona asko langabezian gertatuko dela, poltsa alternatiboak kanpoan egiten baitira, merkeago ateratzen baitzaizkie.

Bukatzeko, jakin beharko genuke, papezarekin batera plastikoa dela birziklatzeko mate-

riarik errazena.

Egin beharko genukena da: enpresa multinazionalak plastikozko poltsak berrerabiltzea eskatu, eta poltsa horientatik ez ordaindu; hau da, beraiek kudea ditzatela.

Iker Izagirre
Jon Patxe
Elizatzko ikastola

100 urte txuri-urdinez

AITOR HARTO ETA IÑIGO GARIN

Real Sociedad. Bi hitz hauek esaterakoan, gertaera ugari izandako 100 urte aipatzen dira. Garai batean *igogailu taldea* izenarekin ezagutzen zen, izandako igoera eta jai-tsierengatik.

Gaur egun, ordea, Real bigarren mailan ari da bere indarra erakusten, baina ez da garai batekoa bezalakoa. Hau da, gaur egungo jokalariek ez dute garaiko jokalarien kasta.

Halaber, garaiko jokalar horiek hainbat denboralditan (80ko hamarkadan, esaterako) talde hobea zuten. Bestalde, aipatzekoa da, Atotxa futbol zelaia Realaren hamabigarren jokalaria zela. Hau esaterakoan, esan nahi dugu, zelaiko zaleek Realari izugarri laguntzen ziotela hainbat egoeratan, bai animo aldetik, baita epaileak presionatzeko garaian ere.

Realeko bazkide garenok, badakigu hori gaur egun, ez dela horrela. Anoeta futbol zelaiko egitura ez delako batere egokia jokalariekin harremana izateko eta horrek, noski, eragina du sailkapenean.



Reala 1909an sortu zen.

Bestalde, Realeko harrobia Espainia mailako hoberenatarikoa da eta mutil horien ilusioa eta gogoia erabiliz, denon ametsa lortu behar dugu: Real lehen mailara igotzea. Harrobiko mutil hauen ilusioa, fitxaturiko beste edozein jokalaria baino handiagoa da.

Bukatzeko, aurten badirudi taldeak ilusioa sortzen duela zaleen artean. Ea aurten igotzen garen!!!

GORA REALA!!!



Gaur egun suizidek beste norbaiten poltsikoak betetzeko egiten dute beren buruaz beste.

Nola iritsi daiteke pertsona bat bere buruaz beste egitera?

Denok dakigu zer diren eraso suizidak, ezta? Zoro batzuek beren burua lehertarazten dute, eta beraiekin hainbat biktima eramaten dituzte heriotzara. Oso ondo dago hori jakitea,

baina hori lehen mundura iristen zaigun informazioa da. Benetan, zer dago eraso hauen atzean? Zer dago pertsona hauen atzean? Zergatik egiten dute bere buruaz beste?

Gaur egun suizida ezagunenak islamiarak dira. "Yihad"-eko (gerra santuko) kide, eta Irak, Afganistan, Palestina eta halako herrialdeetatik etortzen zaizkigu haien albisteak. Baina, garai guztietan egon izan dira eraso suizidak. Bigarren mundu gerran, adibidez, pilotu japoniarrek amerikarren armadako itsasontziak erasotzen zituzten.

Garaipena lortzea ezinezkoa zela ikusten zutenean, hegazkinak itsasontzien aurka bideratzen zituzten, bertan lehertaraziz. Beraien bizia galtzen zuten, baina etsai askorenak ere eramaten zituzten beraiekin. Baina, nola iritsi daiteke pertsona bat bere burua akabatzen? Aditu askoren ustez, burua "garbitzen" diete, beraien bizia pisuzko arrazoi bategatik sakrifikatzen dutela sinestaraiz. Arrazoi hauek Alá, herria defendatzea eta beste hainbat direla esan liteke, baina egiazko arrazoiak haxe da: Dirua.

Gerrak dirua sortzen du, eta batzuek horregatik sorrarazten dituzte gerrak, jendea engainatuz, euren kontura dirua eta boterea lortzeko. Askori gerra interesatzen zaie, armen trafikoa, kaosa... horri guztiari probetxua ateratzen diote. Beraz, benetan gaur egungo suizida hauek beste norbaiten poltsikoak betetzeko egiten dute beren buruaz beste. Gobernuei interesatzen zaie:

jendea terrorismoaz arduratzen bada, ez die hainbeste kasu egingo beste arazo batzuei (egoera ekonomikoa, osasuna, eskubideen urratzea...) eta nahiz eta gripeagatik edo HIESagatik milaka pertsona hil, eraso terrorista batek ehun pertsona hiltzea beldurgarriagoa iruditzen zaigu.

Orain gauza bera gertatu da "gripe porcina" edo dena delako honekin. Beste edozein gaixotasunek (lehen aipatutakoak, hepatitisak, malariak...) askoz ere hildako gehiago eragiten dituzte, baina arazo urrun bat iruditzen zaigu, beste mundu batekoa, eta ez zaigu interesatzen konponbidea bilatzea. Honekin esan nahi dudana zera da: gure munduan sartuta bizi izan garela, gure gezurrezko globoan. Bizitzako helburu nagusia lan on bat, seme-alabak edukitzea eta etxe dotore eta auto eder bat (edo bi) edukitzea izan da. Udan, Aste Santuan eta Gabonetan kanpora oporretara joateko ere kredituak eskatzen ditugu, eta bitartean, munduaren beste muturrean (eta askotan hiriaren auzo marginaletan ere bai) jendea justu justu dabil bizirik jarraitzeko.

Xabier Agirrezabala
Elizatxo ikastola

Kontenedore baten egunerokoa

1985eko azaroaren 3a

Gaur goizean, betiko andreak esnatu nau. Nire pareko etxean bizi denak, atetik atera denean bi poltsa basurekin... mmm bazen garaia! Iadanik gose nintzen. Papera eta plastikoa nahi nituen, horiek bai goxuak. Baina, kaka zaharra! Dena organikoa egunkari bat izan ezik. Berdin zitzaidan, oraindik jende asko falta zen, eta denek edo ia denek jaitsiko zuten zaborra. Pentsatzen ari nintzen

bitartean, laugarren pisuko gizona jaitsi zen. Atzo jende asko igo zen berarekin etxera, festaren bat egingo zuen... Toma! Festa = zaborra, zaborra = janaria! Asmatu nuen. Lau poltsa bota zituen nire barrenera. Ia dena plastikoa, hori bai gozada!

UNAI GRANADO
Elizatxo ikastola

2003ko urriaren 21a

Ez dakit baina pixkanaka pixkanaka, zabor gutxiago botatzen didate... bueno, zaborra bai, baino... plastikoa eta papera... oso gutxi. Kabenzotz! Duela urte pare bat lagun batzuk etorri ziren, Urdin eta Hori. Nire lagunak ziren, baina, Horik plastikoa kentzen

zidan eta Urdinek papera. Egun batean zaborra botako diet! Ikusiko dute zer den ona!

UNAI GRANADO
Elizatxo ikastola

Blai-blai eginda gozatzuz

Surfa mundu bitxia da ezagutzen ez duenarentzat. Modako kirola, aberaskume pijoekin, erdararekin, "guai"keriekin lotu izan da. Uretako kirol arrakastatsuen da aspalditik gaztetxoan artean. Urtero gero eta gehiago zarete surfa ezagutu eta ikasi nahi duzuenak. Aurtengo udan ere hainbat ikastaro antolatuko dira, Surf Federazioaren eta Gipuzkoan dauden surf klubuen eskutik.

BA al dakizue noiz eta non sortu zen surfa?

Surfaren jatorriaren inguruan bi teoria daude. Lehenengoak dio Hawaiien sortu zela. 1770ean James Cook kapitainak irla horretako biztanleak itsasora sartzen ikusi omen zituen enbor batzuen gainean arrauna eginez. Hasieran ekitaldi erlijioso gisa egiten omen zuten hori, baina pixkanaka baita turismoa erakartzeko ere, eta halaxe sortu zen kirol gisa. Beste teoria batek, berriz, Perun kokatzen du surfaren sorrera. Inken aurretiko zeramikazko obra batzuetan argi ikusten da gizaki bat enbor antzeko batean olatu gainean ibiliz.

Kontuak kontu Euskal Herrian indar handia hartu du surfak, eta 1989tik Euskal Herriko Surf Federazioa dago. Surfari aipagarri asko dago gurean: Gipuzkoan, Aritz Aranburu eta Hodei Collazo, eta Bizkaian, Iker

Fuentes eta Acero anaiak, esate baterako. Surfarekin ateratzen dute bizimodua horiek, eta munduko zirkuituko probetan aritzen dira.

Aritz Aranburu

Aritz Aranburu Azpiazu (Zarautz, Gipuzkoa, 1985eko abuztuaren 30a) surflari profesional gipuzkoarra.

2007ko Europako Txapelduna eta 2008tik aurrera, ASP World Tour zirkuitoan parte hartzen du, munduko 45 surflari onenen artean. Hau lortu duen bosgarren europarra eta lehenengo euskalduna da.

2008ko urtarrilean, Euskadi Irratia Saria jaso zuen eta 2007ko kirolari onena izendatu. 2007ko Euskadi Saria ere jaso zuen. WQS zirkuitoan hiru izarretako Zarautz Pro Surf proban garaipena lortu zuen bere herrian. Beranduago, Frantzia, Europako Txapeldun izendatu zuten. 2007ko aza-

roan, Hawain ospatutako sei izarretako probako finalerdietara iritsi ostean, WQS zirkuitoko lehenengo 15etan sailkatzea, matematikoki lortu zuen. Honek, hurrengo denboraldian munduko mailarik onenean jokatzeko txartela ematen du WTC zirkuitoan, Munduko 45 surflari onenen artean. Hau lortu duen historiako lehenengo euskalduna izan da.

Hodei Collazo

Hodei Collazo Picabea Zarautzen jaio zen 1984ko ekainaren 30ean. Asko gustatzen zaio surfean ibiltzea eta berak dioenez bere olatu hobereana Mundakako bat izan zen. Surfaria da eta munduko leku askotan egon da, adibidez; Hawaiien, Australian, Maldivetan...

Arropa marka batzuekin egiten du lan, esate baterako, Quick Silver, Billabong eta Rip Curl.

Beharrezko materiala

Taula: 2 metro inguruko ohola. Taula mota asko daude. Adibidez, surfa ikasten hasi behar duzunean surf taula handiak erabiltzen dira eta gero eta gehiago menperatzen duzunean, taula txikiak erabiltzen dira. Formaren arabera ere badira: punta zorrotzekoak edo punta borobilagoak dituzte.

Intentoa: Tabla eta surflariaren hanka lotzen dituen plastikozko soka da. Taularen gainetik erortzerakoan taula ez ihes egiteko erabiltzen da.

Likra edo neoprenoa: Bularraldea ez zauritzeko plastiko berezi baten bidez eginiko jantzia. ||

Alba Gonzalez
Olatz Garcia de Vicuña
Leire Etxeberria
Elizatxo ikastola

IRITZIA



Frikia naiz, larria al da doktore?

Askok esan didate dagoeneko, friki edo freaky hutsa naizela. Arrazoi askorengatik esan didate gainera, ordenagailu artean ibiltzen naizelako, dragoibolaren edota beste manganimeren fan sutsua naizelako, animeetako gauzak kolezionatzen ditudalako, "cosplei"-ak gustoko ditudalako...

Gizartean zer da friki bat? Ba, nik neuk ere ez nuen oso argi zer zen. ontzeptu ugari ditu inguruan, baina zehazki zer esan nahi duen begiratu nahi nuen. Horretarako, zein hobea San Google baino.

Freak idatzi eta wikipediara eraman nau. Hau dio bertan:

"Friki, friki o freaki (forman baino esanahian ingelesetik dator -freak-, arraro, bitxi, nabarmen edo amorratua esan nahi duena). Gaia edo zaletasun batean itsutua dagoen pertsonari buruz hitz egiteko erabiltzen da termino hau gazteleraz. "Frikismo" maila ezberdinak daude, maila handiena bere zaletasuna bizitzeko modu bat bihurtzen denean da.

Beraz, honek dioenez frikia izango naiz, bai, baina friki deitu didaten guztiek ere bai, denok edo ia denok baitugu zaletasun, mania edo horrelakoren bat. Futbola asko gustatzen zaizula? Ba, frikia zara. Lorezaina zarela? Ba, frikia zara. Kirola egiteagatik lorik ez duzula egiten? Frikia!! Idaztea oso gustoko duzula? Berriz ere, frikia. Gitarra edo beste instrumentu bat jotzea gustoko duzula? Beste friki bat munduan.

Baina onartzen dudanez, ez zait axola inork arraro, fanatiko, informatiko, edo friki deitzen badit. Sekula ez zait inporta izan, eta ez dut uste egunen batean axolako zaidanik.

Hori bai, ni frikia banaiz, denok gara frikiak!!

Unai Granada
Elizatxo ikastola

Alearen egileak:



Elizatxo ikastolako ikasleak izan dira gaurko alearen egileak.